

Sabino Arana-Goiri eta euskara

In: Askoren artean: *Nacionalismo Vasco. Un proyecto de futuro con 100 años de historia. II. Cultura vasca y euskera, ejes de la identidad nacionalista*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 1998: 93-105.

Ehun urte bada Sabin Arana-Goirik lehen alderdi abertzalea sortu zuela. Aurreneko aretoa, Bilboko Correo kalearen 22an, Boulevard izkinan, izan zuen, hemen jaso zen lehen aldiz Bizkaiako ikurrina, 1894.go uztailak 14 zituela, arratsaldeko seitan.

Hara jaiotzarako leku, toki eta ordu zehatza.

Ez zen oraindik lehen urratsa baizik, baina honen eraginaz hurrengo egunean bildu ziren berrogeta hamar lagunek aukeratu zuten lehen batzarrea, Sabin buru zutela eta "*Jaun-Goikua eta Lagi Zarra*" lemapean, *Euskalerriko zazpi lurraldeak biltzen zituen konfederakuntzan*: Araba, Benabarra, Bizkaya, Gipuzkoa, Laburdi, Nabarra eta Zuberoa, *denak eskubide eta betebeharrak berdinekin beren artean banatzeko. Elkarrekiko loturak, sozialak eta atzerrirakoak ziren soilik, eta euskara izango zen hizkuntza ofiziala.*

Hemen abiatu da nere gaiaren norabidea Sabin Arana-Goiri eta euskara.

Euskarak beragan izan zuen eragina.

Salaketapean itxi zuten lehen Batzoki hau 1895.go irailaren 13an.

EAJ/PNVren sorrera.

Aipa berri dugun Bilboko batzokia sortu bezain laster beste bat zabaldu zen Busturian; urtebetera, 1895.go uztailak 31, San Inazio eguna, sortzen da hemen, Busturian, aurreneko "Bizkai Buru Batzarra" Sabin bera buru zela, eta batzarkideak: Luis de Arana, Fabian de Izpizua, Elías de Lekue, Juan de Aranburuzala, Ciriaco de Llodio eta Salvador de Etxeita.

EAJren egitura egina zegoen; gainontzeko herrialdekoak osatzea falta zen.

Alderdiaren garapen politikoak bere bidea du; oraingoz euskarak bertan izan duen eragina denez bide honi jarraituko diot.

Artiñano jaunaren Akademiaren egitasmoa (1886)

Gutxitan aipatu da Sabinekin Akademia baten aldeko izan zuen ardura.

Sabin gaztetxo zela, 21 urte, argitaratu zuen 1886.go uztailaren 20an, ez bere prentsan, oraindik hau hasteko baitzegoen, baizik eta *Donostiako Euskal-Erria* aldizkarian, 361-364 or., Sabin gazteari argitaratu zioten bere lehenengo idazlana:

"Esta nación es presa de desgracia inmensa, es indudable para cualquiera que tenga los ojos sanos y verdadero concepto de la desgracia. En el mío humilde, estimando que el actual rebajamiento de carácter del pueblo *euskaldun* es efecto, precisamente de su ceguera y flaqueza, para rechazar su penoso estado, y que no es posible que Dios olvide al pueblo que, arrastrando el rigor de las oleadas paganas y heréticas ha conservado vírgenes sus sanas creencias primitivas (...) Es, pues, posible que la felicidad vuelva a

tener sus alas sobre las tristes montañas del antes risueño a la vez que sublime suelo *euskaldun*".

Ageli da gaztearen sua.

"La patria, empero, sólo de patriotas puede esperar. Dios no hará milagros mientras se cruce de brazos el *euskaldun* (...) ¡Dichoso el pueblo que conoce su historia! (...) En los naturales de las regiones que, como las del norte de Laburdi y Zuberoa, este de Navarra, oeste de Bizcaya y sur de Alaba y Nabarra, han perdido su idioma, el carácter euskariano ha desaparecido en la mayoría".

"*Más para llevar a feliz término el estudio de la lengua e historia euskerianas, precisa la uniformidad de ideas, la unidad y simplificación de métodos y la unificación de teorías.* Hoy, cada tratadista sigue su sistema especial y no puede atenerse a un norte fijo, porque no lo hay. Este sólo será posible cuando las personas que en nuestro suelo se consagraron con más o menos interés a los estudios históricos y filológicos, reuniéndose en sociedad, constituyen una Academia que tienda al esclarecimiento de la verdad en aquellos dos órdenes de conocimiento y móviles patrióticos; una Academia que en la historia elimine la fábula y admita sólo los hechos; (...) y que en lingüística resuelva y elida las formas y vocablos alienígenas, perfeccione las indígenas y deslinde las formas degeneradas de las primitivas, determine el método fundamental y aun el didáctico y forme voces nuevas que correspondan a los nuevos significados que en la actualidad se presentan; una Academia, en fin, que estudiando seriamente la historia e idioma de ese pueblo original, e infiltrando y propagando en él su perfecto conocimiento, atienda por esta doble manera"...

"Teniendo en cuenta la importancia de una Academia de tales objetivos, la digna Comisión de las Fiestas Euskaras de Durango, celebradas en julio último, destinó un número del programa de su certamen literario a proyecto, bases y reglamento de una Academia de la lengua euskara, en completa armonía con los principios católicos, número que fue cubierto con el Proyecto de Academia Bascongada, escrito por el Ilmo. Sr. D. Alístides de Artiñano, autor de *Historia del Señorío de Bizcaya, histórico y foral*".

"El Ayuntamiento de Durango, cuyo premio correspondió a la obra del señor Artiñano, va a presentarla a la Diputación de Bizcaya, a fin de que apruebe y prohija un proyecto cuyos estatutos son inmejorables, y proceda a la instalación de *la Academia en conformidad con las Diputaciones hermanas*".

Ikusten den bezala, *Sabin gazteak kontuan du hizkuntza batuko duen Akademia*, eta eskualde guztiak honetan parte har dezaten arduraz, hau da 1918an, 32 urte gero, eta Bizkaiaren eraginaz, sortuko den Euskaltzaindia.

Gero, Hendaia eta Hondarrabiako Congreso Euskerista 1901-1902 bileretan borrokatu zen ortografia batuaren alde, gero aipatuko dugun bezala.

"Bizcaya'ren edestija ta izkera pizkundia", argitaletxea

Bizkaitarra (1893) izan zen Sabinekin argitaratu zuen lehen agerkaria, "Larrazabal" baserriko afarian lur jota geratu eta bost egun gero, hain zuzen. Porrotaren berezko eragin bakartia, besterik ez zen izan. Espetxetik bidali zuen 33. alerako textua, eta hor

hiltzen. Gartzelaldiak, 1895eko abuztuak 28tik 1896.go urtarrilak 13 arte iraun zuen. Geldi aldi honen hurren sortu zuen garai hartako abentura handia zen argitaletxea.

Hemen agertzen da lehen aldiz euskal sei lurralde historikoen zigilu baten buruan, "Euzkadi" hitza.

Ordurako argitaratu zuen bere "Tratado etimológico de los apellidos euskéricos" (1895), eta argitaletxe berriak argitaratzen duen lehen lana: "Lecciones de ortografía del Euzkera Bizkaino" da (1896), Luis de Eleizalde "urrezko 300 orrialde"ko bezala aipatzen duen liburua. Hemen bertan argitaratzen du Sabineek *Egutegi Bizkaitarra* (1896, azaroa), 1897rako poltsikoko egutegia, eta 1898rako *Lenengo Egutegi Bizkaitarra, dena euskaraz*, kristau izendegia euskarara egokitua, eta baita Umiaren lenengo Aizkidia, haur euskaldunak euskaraz irakurtzen ikas dezaten, biak 1897an argitaratuak.

Nondik datozen gure ikastoletako ahaleginak!

"Tengo la impresión" –dio Koldo Mitxelenak, hau aginpidearekin esan dezakenak– (Muga 1, junio 1979: "Sabino Arana, según Jean-Claude Larronde", 100-104 orr.) "de que la importancia de Sabino en cuestiones de lengua en general y como prosista en euskera en particular, ha sido claramente minusvalorado, por mí mismo en primer lugar, por lo que no puedo reprochar a Larronde que se haya hecho eco incidentalmente de la opinión dominante. Hoy pienso que su *Lenengo Egutegi Bizkaitarra* (1898), es aparte que *representa un esfuerzo extraordinario para adecuar la lengua escrita a nuevas necesidades, una muestra insuperable de literatura propagandística*, tanto en la ponderación de productos propios como el descrédito de los ajenos, muy en particular de los más próximos y afines. Porque Sabino, como Carlos Marx (y que me perdonen la comparación los unos y los otros), hombre de extrema afabilidad en el trato privado, cortó siempre en seco todo intento de alternativa política que difiriera de sus posturas, por las buenas o por las malas. Miguel Artola ha señalado un hecho esencial que no se suele siempre advertir: el PNV es un partido que tiene fundador".

Hendayako Kongresu Ortografikoa 1901.go irailak 16 Manuel Irujo jaunak esaten du *Alderdi* aldizkarian (azaroa, 1954). Hendaiako kongresuan aritu zirela euskeraren defentsan, euskal kultura bultzatzeko eta ortografiaren batasunerako. Estanislao Aranzadik proposatutakoa onartu zen: euskal literaturarentzat erakunde federatu iraunkor bat sortu, eta aukeratu ziren M. Adema Kalonjea buru, Campión eta Arana-Goiri jaunak presidenteorde: Guilbeau jauna idazkari orokor, eta Hiriart, Arbelbide, Azkue, Guerra, Serapio Mugica eta Daranatz jaunak, bokal. Eman zitzaion izena Eskualdun Biltzarra. Hurrengo urteko Hondarribiarako, *Aranak proposatu zuen Euskal Akademiaren sorrera*. Aipatutakoez gain izan ziren batzarrean Iturralde eta Suit, Arrese-Beitia, Luis Arana-Goiri eta Domingo Agirre (...) Sabineek bere La Patria aldizkarian lan hauen berri eman zuenean, protesta bat agertu zuen idazkari orokor zen Guilbeau jaunaren aurka, honek Hendaiako biltzarraren aretotik Vinson euskalari jauna, jatorriz euskalduna ez zelako, bortizki egotzi zuelako".

Hondarribiako Biltzarra (1902.go irailak 11)

Lehen Hendaian bezala, biltzen da orain Hondarribian Euskal Zaleen Biltzarra bilakatuko dena. Sabino Aranak ez zuen etortzerik izan, baina txosten bat bidali zuen euskal sistema ortografiko bat proposatzen, bortizki oposatua izan zena. Halere, 1918an Oñatin Euskaltzaindia Euskal Akademia sortu zenean, Arana-Goirik bidalitakoan eta beste batzuen, Azkue, Bonaparte, Oihenart, Dal'Tigol eta Duvoisinek beste batzuen lanekin oinarrituta onartu zen.

Orduz gero, Euskaltzaindiak asko eta asko aurreratu du arlo guztietan, eta hizkuntzalari arrotz eta euskaldunak lagun direla, ezaguna denez.

Honela erantzun zion Eleizaldek Euskaltzaindiako 6. artikuluan jaso zuen ardurari: "Trabajaré preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos nos permita disfrutar de una literatura común".

Sabinek bere hogeitun urtetan dagoeneko gordetzen zuen izpirituan.

Neronek aipatu nuen Euskaltzaindiaren historia laburrean Arana-Goirik Donostiako Euskal-Herria aldizkarian argitaratu zuen Antiñano jaunaren aldeko lana, bere hogeita bat urterekin idatzia, bere lehen artikulua, eta hau euskararen gomutan eta bere alde.

Sabin Arana-Goirenen lan osoak Buenos Airesen argitaratu ziren, bolumen batean, lehen aldiz. Argitaraldi honen kontu handiko ardura, ardura neketsu eta luzea, Sabindiar-Batza'k hartu zuen. *Bigarren aldiz 1980, Donostia* (errezago zen egina kopiaatzea), Donostiako Sendoa Argitaldaria 3 bolumenetan, martin Ugaldere ardurapean.

Aldi honetan erantsi genizkion hirugarren bolumenean: *Cartas escritas por Sabino Arana, Estibaliz, Luis Arana eta Broussain artxiboetan gordetzen direnak*, eta pertsona izenen indize bat.

Honez gain, lehen agerraldiko Sabindiar-Batza'ren Prologoaren aurretik sartu nituen, argigarri izango zirela pentsatuz, hiru berri: Neronek eskatu nizkien Pierre Lafitte-ren "Sabin Arana-Goiri eta Iparraldea" eta L. Akasolo-ren "Arana-Goiri, euskalari", eta neronek idatzitako "Sabin Arana-Goiri" biografia.

PIERRE LAFITTEk dion bezala, Sabin Arana-Goirenen aita, Santiago Arana, karlista, Iparraldera egin zuen ihes 1873.go uztail-abuztuan, arma kontu batzu zirela eta. Haurrak joan ziren laster, amarekin Bergara eta Errenteria barrena heldu ziren Hendaia. Baionan jarri ziren bizitzen. Luis, zaharrena, eta Sabinek zortzi urte, Betharramiten ikastegian sartu zituzten eta hemen ikasi zuten bi urtetan. Gero, Donibane Lohitzunera aldatu ziren; hemengo elizan egin zuen Sabinek lehen jaunartzea 1875an, eta etxera joaten ziren irakasleak: apez nafar bat Luisentzat, eta karlista arabar bat Sabinentzat.

Francoren aurkako azken borroken giroa bizi izan dugunontzat ulergarri, eta errepikakor, da hau dena!

"Mintzairaren aldetik", dio Lafittek, "aitor dezagun frantsesa ikasi badu ere Baionan haurrean Sabino Aranak, euskera ez duela ikasi ez Baionan, ez Donibanen, nahiz Donibaneko haurren artean euskara nagusi zen orduan, gaur ez bezala. Geroago,

gaztetan, euskara ikasi nahiko duenean, Bizkaitarrari lotuko zaio eta Bizkaitarrak izanen dira haren erreferentziak, hala nola Astarloa, Zabala, Kanpanaga, Mogel, Añibano, Fray Bartolome, Elgezabal edo Uriarte. Ez ditu, iduriz, irakurri gure klasikoak, ez Etxepare, ez Leizarraga, ez Axular. Aipu ditu, halere, Bonaparte, Van Eys, Inchauspe eta... Léwy d'Abaltiaque. Bestalde, orduan hain modako ziren etimologietan hasten delarik, ez du bereizkuntzarik egiten euskalkien artean eta hor ditugu Iparraldeko izenak lekuko, hala nola Ayerra, Baigorri, Donibane Lohitzune, Donapaula; eta Amezpil, Apezarena, Harizmendi, Hariztoi, Harretxe, Ihartza, Karrikondo, Uhalde; eta holako"... "O.C. 702-809 orri".

"Azkenik erraiten dugu", dio Lafitte jaunak bere hitzaurrea amaitzeko, "Sabino Arana-Goirik aurkitu zituela, gure ustez, Iparraldean, bederen bi abertzale zintzo, bere gogokoak osoki; bat Ziberoan, Atarratzeko osagilea, Albert Constantin (1873-1957), Jan Batista Constantin (1847-1922) ziberotar idazle bikainaren semea, eta bertzea Lapurdin, Hazparneko osagilea, Pierre Broussain (1859-1920). Hazparneko medikuaren paperetan ditugu, dudarik gabe, hatzemanen abertzaletasunaren historia Iparraldetik egin nahi izanen deneko xehetasun aberatsenak. Anartean hor daukagu, Sabinok berak, bere Hazparneko adizkide onari, 1898-eko azaroaren 15-etik 1902-eko urtarrilaren 20-rat bidali sei eskutitzak".

"Agian Iparraldean ihesleku eta aterbe baizik ikusi nahi ez duten zenbaitek onartu nahiko du, historia hau ikertzearekin, Iparraldean bizi diren euskaldunek partehar dezaketela Herriaren eraikuntzan!".

LINO AKESOLO euskaltzain eta idazle bizkaitarrari eskatu nion beste sarrera.

"Alderdi bi ditu Aranak orduan asitako ekintzak: batetik, *euskal iskasle eta aztertzailearena, eta bestetik euskeraren zabaltzailearena*" (...) baina "bigarrean, euskerari emon eutsan bultzadaren aldetik, Aranak ez daukala bardiñik izan esanaz ez dogu, ez, alan ez danik esango. Arrezkeroko Euskal-Bizkundeak Aranari zor deustso geien geien. Aitor au egin ez deustsanik gitxi dago, eta dagozenak, ezjakinez, edo jakin nai ez-ta. Aranarenik gitxi edo bape irakurri ez dabelako edo arenik irakurtzea bere, nonbait, gutxitzat edo alpertzat daukelako".

Ikuspuntu honetatik, eta jakingarri, doa Akesoloren lana.

Bereizten ditu Akesolok bi muturreko puntu nagusi: Unamunorentzat, Arana-Goiri poeta edo olerkari izan da bere bizitzan eta politika guztian, baina Koldo Mitxelena hizkuntzalariarentzat gehiago da.

Akesolo, bere aldetik, begiralditxo bat boteaz hasten da:

Sabinek aitortu zuenez, "hamazazpi urte zituela (1882) itxartu jakon euskal-gogoa, eta bere bakarrean hasi zen euskeraz ikasten, Van Eys eta Astarloa argi-egille eta bide-erakusle zituela. Laster Kanpion-en *Gramatica* argitara zenean, an aurkitu dau ainbat argi barri, arexek zabalduko deustso bere ikuspegia euskalki guztietaraino, eta antxe egin da beste izkuntzalari eta euskalari batzuen (Bonaparte eta enparauen) eretxi eta irakatsien jakitun. Astarloaren eta Van-Eysen liburuetatik euskal-itzen jatorria billatzeko, etimologietan murgiltzeko joera geratu jako. Olan, euskal-itzen azterketa sakonak egiten ditu, eta argitaratzen, euskal-aldizkarietan edo bere kontura. Ogei urtetan sartu-barriko lanak ditu: *Etimologías euskéricas, Pliegos euskerófilos, Gramática elemental del euskera bizkaino* eta abar".

Aipatzen du Lino Akesolok Bizkaiko Aldundiak; Institutoan euskara jarri nahi duela ikasgai, 1888, gauza ezaguna, batez ere Arana-Goirik bere buru irakasle izate gaitzat daukalako, eta beste aldetik, Unamuno, garai hartan lanik gabe, lanposturako aurkeztu beste batzuekin batera: Azkue, Madina eta Alberdi. Azkue izan zen hautatua, "abade zanez eta ikas-agiria bere ba eukanez, epaimaikoak berau aurkitu eben egokientzat".

Aipa berri ditugun euskal gaiezko bi lanez gain, 1895, 1896 eta 1897an agertzen dira: *Tratado etimológico de los apellidos euskéricos* (amaitu gabea, eta Mitxelenaren eritziz lan sakon eta argibide andikoa), *Ilgutegija* (lenengoa eta ormarakoa), eta *Umiaren lenengo aizkidia* (1897). "Lan otan daukagu Aranan barrizaria eta aztertzaile eta kritikari zorrotza".

Bestela ikusten ditu Mitxelenak, noski:

"Honen eretziz, Aranaren euskal-lana ondo aztertu barik dago. (...) Egia ei da bere bereak dituen ibilbideak asmatu dituela euskeraren arloan; (...) baiña zeintzuk ditugu, bada, Abandotarrak aztertutako arloak? Etimologiari eta Fonetikari dagozkiozan sailak, batez ere. Sail onetan sartzten ditu berak euskal-itzen jatorria, itzen alkarren artekera au egitean jazoten diran ots-aldaketak, fonetika-legeak. Sail au, fonetikarena, orduan jorratzen hasi barria zan, baina fonetika-legeai garrantzi andia emoten eutsan berak, euskeraren inguruan edozein azterketa egiteko. (...) Azter-lan onetan nortzuk artu zituen gidari: Fonetika gaietan Kanpion dauko aztertzaile sakonentzat. Baina bera ez da, azterketa sakon barik, kritika zeatza egin barik, iñoren eritzira makurtzekoa. Biotzak eraginda ekin deutso euskera ikasteari, baina jakintzaren argiak aurrean dituala. (Kritikalari zorrotza hau Larramendik). Onen iztegiara itsu itsuan jotzen eben XIXgarren mendeko idazle askok, Aranaren egunetaraino. Esaterako, Domingo Agirrek lenengo euskal-lanetan. Aranak, Van Eys-en iztegiari siñistuta, begi ohea euki eban Larramendirenean bedar txarrai eta gai onari igarteko, eta gogor jorratuko dau aren jokabidea, erderatiko itz askori euskerazko jatorria emon bearra. Ori dala-ta, astiñaldi bardina emongo deutso Aizkibel-en iztegian. Eta Novia Salzedo-rena iztegi lotsagarritzat dauko".

"Abandoko arranoa" goitik ibili zela dio Akesolok: "arranoak ain zuzen, goietan zear bakarrik egatzea maite izaten dabe. Bakarrik ibillia da Arana. Asi zan, bai, asi zerbait bialtzen. Baiña oso gitxi, Euskal-Erria aldizkariak lenengotarik atea itxi eutsozan; ezizenpean etonela-ta, aldizkariak nai ez ezizendun idazlanik. Gero bere aldizkariak sortuko ditu eta aretan idatziko dau. Arana bakarrik beti, edo bere kumetxoan lagunartean. Eta bakarrik aurkituko dogu, berak lenengo bideak urratuta, aurrera eroan zituen euskeraren arloko ekintza berezietan, asmo barriko eta bide barrikoetan".

Eta Lino Akesolo, Aranak euskeraren sailean urratu zituen bide barri nagusiak argitan ipintzen ditu:

1. Ortografia barriztua

Aranak artu zituen jokabideak erdaldunen aurka, arrazakeriz edo, ibili zela esaten dute, hitz berriak eta ortografia berria eta giza-izendegia asmatzen, "danean berreziak egitearren".

Eta Akesolok uko egiten dio honi.

"Esaterako, ortografia barriztu eta atontzea bear izana ikusi daualako egin dau, edo ainbeste ortografi mueten artean batasuna egin bearra egoalako. Ez jakin askok, oraindino bere, oker uste dabe ortografi bakarra egoala euskal-idazleen artean, aspalditik sendotuta, inguruko erderen ortografia. Ustel ustela. Euskeraren ortografia eta erderena, gaiñera, ezin bat izan. Besteok ez dituen otsak eukitean, ezin izan bat. (...)

"Askoren ustez, K izkia bere ez da erabilli euskeraz Aranaren egunetararte. Ez dakie edo ez dabe jakin nai izan, Iparraldeko idazleak amaseigarren gizalditik ona erabili izan dabela eta Bizkaian bere, Aita Zabala bilbotarraganik eta Añibarro arratiarraganik asita, ondo saltuta egoala. Ez dakie euskal-ortografia barrieztako aleginak, XIXgarren gizaldian bertan Iparraldean asiak zirala. Ez zan guztien gogobetekorik sortzen. Guztiak batasuna nai izan arren, ez zan lortzen nai añako batasunik, ez angoen artean ez emengoen artean, eta gitxiago ango eta emengoen arteko batasunik. Egoera ortan datoz Aranaren saioa, Azkue zanarena eta gizaldi onen asieran mugaz andiko eta emendiko batzarrak.

"Baiña H izkia?"

"Ez ete dabe askok uste Aranak letra orri gorroto eutsala? Hau bere ustela. Ez, hori eukan euskalkiari ez eutsan kendu, ez eukanari ez eutsan ezarri. Beste istilurik ez dago hemen.

"Arana soiñutik, itzen soiñutik itzen ezaugarrira doa, otsetik ota adieraztoteko letrara, ez bestera. Eta bakotxari berea. Letra hau edo letra horrek adieraztoten dauan soiñua ez eukan jatorri garbikotzat; baiña batez bere, ez eukan beste letra guztien amatzat, gaur euren buruak izkuntzalaritzat daukezan batzuk dauken lez. Gaur bada olangorik, letra bat galdu denean edo galdu uste danean, galduaren edo galdutzakoaren ordez H ori jarri bear duenik. Lemoa, or N bat galdu dala-ta. Lemoa jarri bear dogu, nonbait. Alan dago idatzita izkuntzalari anditzat dagoanaren liburu baten. Gaur bada, letra orri garrantzirik ez deusala emoten baiña beti *jarri* izan dana (edo iarri, yarri, xarri) *iharri* idazten asi danik. Bokal biren artean, itz baten barruan, askoren agotan entzuten da bitalteko soiñu bat; edo bapere ez: iges, iyes, ihes, ies. Bearrezko ote da, eta zein da bearrezko ori? Gaurko batzuentzat, H da bearrezko (Mitxelena berak, *Fonética Histórica Vasca* liburuan, 88 garren orrialdean, ez deutso iñori nai ta ezko eretxirik ezarten)".

"Aranarentzat agozko izkuntza lenago da idatzia baino eta ez bestera. Nor dabil zentzubidetik eta jakintza-bidetik urrago?"

Baiña Euzkadi?

"Euskera erabili eban Aranak luzaro, baiña *Euzcadia* idatzi eban E-M. Azkuek Arana jaio baiño lenago, eta euzkera eta euzkaldun askotan Abandoko perratzaile edo aberesendatzailleak. Azkenez, Heuzcara eta Heuzcaldun XIIIgarren mendean beti

Iparraldeko idazle batek bere liburu mardul baten. Olantxe, H ta guzti, baiña Z orrekin. Arana emen bere bakarrik ez dago".

2. Izendegia

"Aranaren izendegia egutegian agertu zan, ez erdal-izenak euskararatzeko asmoz, izen orren euskal-itxura emoteko baiño, beste izkuntzak egiten daberen legetxe. Euskaldunak ordurarte ez ziran asko arduratu orretan. Geienetan inguruko erderen izenetara makurtzen ziran. Frantzialdera edo Españoldera. Ez ete egoan batasuna egiterik? Izenak, entzunaz batera emakumeena eta gizonekoena dan adieraztea nai bazan, arau bat bearrezko genduan. Eta Aranak bat asmatu euskun. Berak ba ekian barrikuntza onek eragozpen andiak aurkituko zituela onartua izateko. Ulertzekoa da Bidasoz emendiko erdal-izenetara oituta egozanai gogortxo egingo jakiela gizonai andra-izenen antzeko izenak ipintea. Orregatik edo, amaiera geiagokoak jarri zituen: Sabin, Mikel, Andoni eta olan. Bear bada, atzerrietako izenak euskal-itxuratzen, antziñegiko sustraietara jo eban eta izen bitxiegiak atera, *Koldobika* eta olakoak, eta gaiñera fonetika-lege estutxoak erabili. Gizonetako izenai -A amaiera emotea dala-ta esan bearra dago olako izenak Iparraldeko idazleetan oso erabiliak izan dirala. Iparraldean ia geien argitaratua izan dan liburua *Ejercicio* izenekoa da. Nik 1857ko argitaraldia daukat aurrean. Eta ona zelango izen-zerrenda dakan-en gizonetakoentzat: *Tita, Satira, Salma, Kalista, Sixta, Hipolita, Dominika...* Beste mordon ederra atera geinke XVIIIgarren eta XIXDgarren mendeko idazle batzuen liburuetatik: *Moisa, Dositea, Anselma* eta abar. Osterantzeko amaiera dauketatik bere pillo ederrak dagoz: *Seberin, Paulin, Sabin, Justin* eta abar. Abandotarrak moldatutako asko bardin-bardinak ez ete dira? Ez dago, beraz, Ixendegiaren egilea emen bere ain bakarrik eta ez dabil ain bitxi".

3. Itz barriak

Arana-Goiri, garbikeria egotzi zaio, eta erdal kutsua.

"Ez dago ukatzerik euskaldunak eta euskal-idazleak. Erdal giroan bizi eta erdal-giroan eskolaturik, luzaroegi egon zirala erdal-eraginaren pean, erdera bati edo besteri lotuta. Gero, luzarotxo egon ziran, Larramendi azaldu zanean, guzurrezko euskal-giro baten barruan, arek asmatutako itz asko jatortzat artuz, eta erdal-itz asko euskera garbikotzat erabiliz. Guzurrezko giro onek Aranaren egunetaraino irauten dau, eta onek guzurrezko jatortasun ori salatu eta egiazkoago batera bultzatu, orixe egin eban. Egintza onurakorra.

"Idazle zarren gatx-erizle eta gorrotatzaille izan zala ez da egia. Idazle zar asko irakurri ditu, Bizkaikoak batez bere". *Peru Abarka* ez bein bakarrik. "Ordezko euskal-itz jatorrik aurkitzen badau, euskerazkoa jarriko deutso; bestela, erdal-kutsuzkoa itxi, barririk asmau barik. Ori bai, Arana-Goiriri ez jako buruan sartzen euskal-itz jatorrai eta erdal kutsukoai mailla bardina aitortu bear jakienik. (...) Gure artean, joan dan mendean, erderatik itzai asi ziran itz barri edo neologismo esaten. Chaho Iparraldeko

idazlea iztegi andi bat egiten asi zan, eta lenengo zatiari, erderatiko itzak ekarri bear zituenari Vocabulaire Néologique jarri eutsan izena. Erderatiko itzei "mikaxkarrak". Aberats argiak giñakez olako ondasunez gure izkuntza aberastu bear bagendu! Gaztelako, Frantziako eta Gaskoinen itzez gure iztegia aberastu bear bagendu!

"Orrelako itz barri asko dira, Larramendirenak batez ere, Unamunok salatu eta gorroto zituenak. Arana-Goirirenak agertzen asi baino lenago. (...) Hitz barriak edozein izkuntzak bearrezkoak ditu. Eta bere erraietatik atera al izan ezker, ainbat obeto. Askotan olan, itz bikotxak zabalduko dira euskera utsezkoak eta erderatikoak (*urrutizkin, telefono* eta abar), beste izkuntzan askotan jazoten den antzera. Eurak aintzat artuak izatea da arazoa. Aranek sortuak edo eratuak or dabiltz bizi bizirik ainbeste: idatzi (iratsi, iratzi, idatzi), aberri, abertzale, eta abar.

"Arana-Goirik arlo onetan egina beti kaltegarri izan dela esatea larregitxo esatea da".

4. Euskeraren gizarte-giroa eta batasun auzia

"Gure gizon au euskera batua lortzeko aleginen eragozgarri eta areriotzat jo dabe askok azken aldiotan; euskera baturantzako joera bati, bere egunetan, bea jo erazo eutzela bere zabaldu dabe". Ez da egia. "XXgarren mendea urratuaz batera, Bidasoaz andiko eta emendikoak egindako batzar jakiñ arek ez euken euskera batuagaz ikustekorik, euskal-idazkera eta ortografiak baiño, eta Arana tartean zala. Batzar aretan lortu ez zana, ortografi-batasuna, geroago lortu zan. Euskaltzaindia sortu zanean, eta Aranek erakutsitako bidetik, ain zuzen.

"Euskera batuago egiteko arazoa beste nonbaiten eta beste nozbaiten iragarri eta azaldu eban Aranek. (...) Aranaren asmoak eta jokabidea argi eta garbi dagoz.

Euskera, euskal-seme guztien izkuntza izatera eroan nai dau, eskubide guztien jabe eta guztien legezko eta egitezko izkuntza izatera. (...) Euskalerra edo eskualde bakotxetik asiko da lana, lenago euren jabe izan ziran eta egunen baten barriro izateko ustea dauken eskualde bakotxetik. Eskualde bakotxean nagusi dan euskera alik batuena egin, osotu eta indartu, guztien arteko izkuntza egin arte, bai literaturan eta bai goikoen eta bekoen, ikasien eta ikasibakoen agotan, kalean eta etxean. Euskera ori jarri bearko da nagusi eskola guztietan, berengoetatik gorengoetarañoetan, erri-batzarreko eta gizalteko agiri guztietan. Olantxe, euskalki bakotxean batasuna lortuaz, Bizkaian euskera bat, Gipuzkoan gipuzkera bat, Naparroan napar-euskera bat jarriko da nausi, eta ezbardintasunean batasuna lortu, politika-bizitzan nai dana rango bardintasun-ezbardintasuna. Olantxe betik asita, euskalki bakotxetik asita. Andik aurrerakoa geroak esango du?

Noiz?, galdetzen dut neuk, zerbait esateko.

Zenbat urtetan, mendetan!, beteko litzateke berezko prozesu hau, eta nola iraun ordurarte?

"Itzaurre au amaitzeko", dio Aita Akesolok, "nire itzak alde batera itxita, beste batzuk irakurrierazoko deusadaz onaiño eltzeko adorerik izan dauan irakurleari. Unamunok eta Mitxelenak esanaren len aitatu dot. Betozen orain beste batzuenak.

"AZKUE bere Iztegi andia ateraten Frantzialden zala jazo zan Aranaren eriotzea, eta Aranzale ez zan arren, Iztegiaren barruan itxi *euskun eriotz orrek* emon eutsan mina, eta Aranagazko on-elitxia: euskalari sakona, tamalez gazterik galdua ("malogrado y profundo vascófilo") izan zala, diño N letraren sarreran. Urteak geroago euskal-eresiaz emondako itzaldi baten (1918) geiago dino: "Nori zor deutzagu nik euskal-musikaz itzaldioak egitea, eta zuok emen entzule baturik, ikusteko zoriona; nori zor jako, Jangoikoaz beste, gure inguruko euskalbizkundera, beronen agerkera maitagarri guztietan? Guzien gaintik, Sabino Arana-Goiri zenari... Egiogun zor jakon omena... gure Bizkunde onen Aitalenari, gure erriaren maitale sutsuari".

"Ez egoan Arana Goiriren eskolakotzat BUZTINTZA, Kirikiño ezizena ain begiko ebana. Arana Goiri il zanean berau zan, Azkuek izentauta, Ibaizabal astekariaren zuzendaria: eta ilberriaren gomutaz idazlan beroa argitaratu eban: "Euskalerrria txirringolan joian eriotzarantza... Euskera galduz joan, euskaldunak eurak eta euskaldunen jatorrizkoak ez eutsen jaramonik egiten... Arana jarri zen sendo ondamendi hau eragotzeko, ta guda gogorrean ibilli da amar urte onetan, bere osasuna eta bere dirua galduaz. Berak eukan lango gogo sendoa bear zan artu eban bidean ez atzera egiteko... Sabino Arana jaunak berak esaten eutsan lengo urte baten bere eta gure adiskide bati: "Jose Mari, azia erein dogu, ta uste dot lur landare onek bota dauz sustrai sendoak... Gaurko gazteria gizondu daitenean ikusiko dau bizi izango danak zelango sendotasuna ta indarra artuko daben landare orrek". KIRIKIÑO, Bloa (bere lau abizenen len-izkiakaz osotutako ezizena) igarle agiri jaku hitz onetan.

"Eta azkenengo itza Aranatar ez dan beste idazle handi batena izan bedi: *Orixe* izan genduenarena: "Sortu zen Arana ta esnatu da euskera ta iñarrosi du burua bizkor... Arana gabe edo Aranaz leku ari izanak badituzu, baiña aren aldekoak naiz aitzikoak, naiz bitarteko naiz Arana kukuak, ua dute eragile, nola edo ala".

"Bustintzak aurretiaz, igarlearena egiñez, ikusia, beste biak orra alan jazo dala ikusi eta aitortu: Arana, euskalari argia, euskal arloan ainbeste bideen urratzaillea, geroko euskal-bizkunderaren bultzatzaile, geroko euskalgintza guztiaren eragile izan da".

Hemen jaso ditut Sabienen euskalduntasuna frogatzen duten lekukotasun batzuk. Eta amaitzeko, hitz bat erantsi nahi dut irazkin gisa:

Sabin Arana-Goiri da euskal abertzaletasuna erein eta lehen aldiz finkatu zuena. Orain ehun urte, hain zuzen. Baina bere garaian jaiotakoak iraungo badu, eten gabeko lanean behar dugu indartu, berritu eta garaiari egokitu. Bizia mugikorra da. Euskal Herriak. Euskadik, bere gizateriaren, hizkuntzaren, politikaren aldiune bakoitzari atxiki behar dio, eta iparra galdu gabe urrats berriak urratu. Arana-Goiri irakatsia ezin da izan behin betiko leloa. Errazkeria handia litzateke buruaren eta bihotzaren alferkeria hau!, zeren eta betirako finko sentitzen direnak hilak egon daitezke dagoeneko.